

## **IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO LANKIDETZAZ PRESTATZEKO LAGUNTZA DEIALDIA 2021**

### **Emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak (IAE) erabaki du Ikertzaileak Erakunde eta Enpresekiko Lankidetzaz Prestatzeko Laguntza deialdia 2021 bere webgunean argitaratzea.

Eskariak aurkezteko epea bukatu ondoren, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean eta 10 egun balioduneko epea eman zen eskaera osatugabeak edo akastunak osatzeko edo zuzentzeko.

Zuzentzeko epea amaituta, 2021eko abenduaren 10ean argitaratu zen ebaluatzeko onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda, eta ezarritako gutxieneko baldintzak bete eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu duten 13 eskaera onartu ziren.

Eskaerak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, IGBBk, 2021eko abenduaren 15ean egindako bileraren ondoren, esleipen proposamena egin zuen, behin-behineko ebazpena eman eta argitaratzeko.

Horren ondorioz, IAEk erabaki du emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena bere web atarian argitaratzeko agintzea, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

Interesatuak aurrean aipatutako 10 eguneko epe berean alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte: **2021eko abenduaren 23tik 2022ko urtarrilaren 5era arte (biak barne)**. Behin epe hori igarotakoan, ez bada kontratua onartzeko edo bertan behera uzteko mezurik bidali, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

#### **Zuzenketak eta alegazioak bide hauetatik aurkeztu ahalko dira:**

##### **Euskarri fisikoan:**

UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan edo edozein posta bulegotan aurkez daitezke administrazio bidalketaren bidez, hau da, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuta Postetxeko langileek lehenengo orriari zigilua jar dezaten eta, behin hori eginda, posta ziurtatuaren bidez igorri hona: *Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala), Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa, z/g, 48940 – Leioa (Bizkaia)*.

##### **Euskarri elektronikoa:**

- **Dokumentazioa erregistro elektronikoan** aurkeztuz: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Erregistro elektronikoa erabiliz gero, "Nora" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzten du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "PIF 2021".
- **Dokumentazioa posta elektronikoz igorri:** [igz.pifindustrial-eskaerak@ehu.eus](mailto:igz.pifindustrial-eskaerak@ehu.eus). Bide hau erabiltzen bada, interesdunak erantzun automatikoa jasoko du. Erantzun automatiko hori dokumentazioa epe barruan eta era egokian aurkeztu izanaren ziurtagiri gisa gorde beharko du.

**Aipatutako aurkezpen-bide guztiek baliogarritasun bera dute. Beraz, interesdunei bakar bat erabiltzeko eskaera luzatzen zaie.**

Aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu Ikerketa Batzordeak, egingo duen hurrengo bileran.

**OHAR GARRANTZITSUA:**

Eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoz bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita: [igz.pifindustrial-eskaerak@ehu.eus](mailto:igz.pifindustrial-eskaerak@ehu.eus).

Leioan, 2021eko abenduaren 22an.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA